

KONTSIGNEN GARRANTZIA

IKASLEEN EKOIZPEN IDATZIETAN

Libe Sukia Garmendia – UPV/EHU – lsukia001@ikasle.ehu.eus

Euskal Ikasketetako gradua

GRADU AMAIERAKO LANA

2014-2015 Ikasturtea

Tutorea: Itziar Idiazabal

Espezialitatea: Euskal filologia

LABURPENA

Argudio testua eskolan gehien landu ohi den testu generoa da eta hori erakusten du Batxilergorako curriculumak. Lan honen abiapuntua joan den urtean egindako ikerketa bat izan da, non argudio-testuak lantzeko sekuentzia didaktiko bat prestatzea zen helburu. Bertan ikasleek idatzitako iritzi artikulua aztertu ziren abiapuntu gisa idaz kontsigna bat erabiliz. Testu haiek egitura aldetik ongi eraikiak zeuden, baina argudio testuetan hain ohikoa den besteari erreferentzia egiteko modurik ez zen ageri eta arazoa kontsignan bertan zegoen, ez baitzuen helbururik zehazten.

Beraz, kontsigna hark eragindako arazoak oinarri harturik datozen orrialdeetan kontsigna batek ondorengo ekoizpen idatzietan duen eragin zuzena frogatu da eta era horretan testu egokiagoak aurki daitezkeela, nahiz eta testu generoak eska ditzakeen alderdi guztiak ez diren ongi menderatuko. Horretarako kontsigna berri bat eraiki da eta haren xede nagusia ikasleei testu hobek ekoizteko baldintzak eskaintzea izan da. Bertan hartzailea konbentzitu beharra azaldu da eta testu berriak bildu dira. Bi kontsignen bidez bildutako testuak Batxilergoko bigarren mailako bi ikasle talde ezberdinen iritzi artikulua izan dira.

Testuen azterketa burutzeko talde bakoitzeko iritzi artikulua eratu eta hauetan kontsignak izan duen eragina ikusi nahi izan da. Horretarako, ekoizpen bakoitzaren hitz kopurua eta egitura ikertu dira, diagnostiko orokor bat egite aldera, baina bereziki bestearen edo hartzailearen ahotsa testura ekartzeko trebeziak izan dira aztergai. Hau da, testu genero honetan oinarritzkoa den gaitasun baten diagnostikoa egin da.

Frogatu ahal izan da hartzailea kontuan hartzerako orduan kontsigna berria erabili duten testuak joan den urtekoak baino egokiagoak direla. Ikasleek bestea kontuan hartu dutela erakusten badute ere, ez dira testuak euren osotasunean guztiz egokiak izan. Egitura aldetik, zenbait hutsune ageri dira, testu guztiak ez baitzeuden behar bezala planifikatuta. Beraz, kontsignak egiten duena ikasleen ezagutzak agerian jartzea da, baina horrek ez du ziurtatzen, jakina, ekoizpenaren alderdi guztiak egoki eraikiak izatea.

Laburbilduz, kontsignek eragin zuzena dute idatziko diren testuen gainean. Ongi zehaztua bada testu hobek lortuko dira, baina horrek ez du testu osoaren egokitasuna bermatuko.

0. AURKIBIDEA

1.Sarrera	4.or.
2. Argudio testuak lantzen.....	5-11.or.
2.1. Hezkuntzan.....	5.or.
2.2. Argumentazioa	5-7.or.
2.2.1. Iritzi artikulua.....	8.or.
2.3. Besteari erreferentzia egitea.....	8-11.or.
3. Kontsigna	11-12.or.
4. Metodologia	12-14.or.
5. Azterketa	14-25.or.
4.1. Hitz kopurua.....	14-15.or.
4.2. Egitura.....	15-17.or.
4.3. Besteari erreferentzia egiteko moduak.....	17-25.or.
5. Ondorioak.....	25-26.or.
6. Bibliografia	27.or.
7. Eranskinak.....	28-43.or.

1. SARRERA

Argudio testuak eskolan gehien landu ohi diren testu generoak dira. Hori erakusten du Batxilergorako curriculumak. Hizkuntzari dagokion atalean berebiziko garrantzia ematen zaio testuak lantzeari eta bereziki argudio testuak lantzeari. Baina hori zergatik? Baliteke argudiatzea gure egunerokotasunean ohikoa den ekintza delako izatea. Gai baten inguruan gure iritzia azaldu nahi dugun bakoitzean argumentatzen dugu, arrazoiak emanaz gure ikuspuntua adierazten saiatzen gara eta solaskidearen iritzia gureganatzen. Argudiozko testuetan etengabe kontuan hartu behar da bestea, aurrean dugun solaskidea edo hartzaile irudikatua. Beraz, argudiatzea oso loturik dago gure egunerokoarekin baina trebezia bereziak eskatzen ditu bereziki idatzizko ekoizpenean.

Proiektu honetan iaz egindako lan batetik abiatu naiz eta bigarren batxilergoko ikasle batzuen iritzi artikulatuak izan ditut aztergai. Argudio-testuak lantzeko sekuentzia didaktiko bat prestatzea zuen helburu lan hark eta horretarako ikasleen gaitasunen diagnostiko modura testuak bildu genituen idaz kontsigna zehatz bat erabiliz. Joan den urtean bildutako testuak egitura aldetik ongi eraikiak zeuden, baina argudio testuetan hain ohikoa den besteari erreferentzia egiteko modurik ez zen ageri. Ohartu nintzen ikasle haiei banatutako kontsignan zegoela gakoa, ez baitzuen helburu zehatzik adierazten eta ez baitzen bestea kontuan hartzeko aipamenik egiten.

Beraz, hortik abiatuta lan honetan zehar kontsigna batek ondorengo ekoizpenean izan dezakeen eragin zuzena frogatzea izan da helburu nagusia. Horretarako kontsigna berri bat eraiki dut, berriro ere ikasle batzuen testuak biltzeko. Bi kontsignen bidez jasotako testuak esku artean izanda, erkatu eta hauetan kontsignak izan duen eragina ikusi nahi izan dut eta horretarako, bestearen edo hartzailearen ahotsa testura ekartzeko trebeziak izan ditut aztergai. Alegia, testu genero honetan oinarritzakoa den gaitasun baten diagnostikoa nola egin aztertzen da. Ez da proposamen didaktiko berezirik egiten, baina uste dut ezinbesteko abiapuntua dela, ikasleek dakitena eta ez dakitena kontuan hartzea, eta hori ikusteko idaz kontsignak zaintzea proposatzen dut.

Lana abiatu aurretik nire hasierako hipotesia da kontsigna berria oinarri duten testuetan besteari erreferentzia egitearen alderdia hobeto eraikia agertuko dela. Beraz, hipotesia plazaraturik datozen orrialdeetan nire eginkizuna hori frogatzea besterik ez da izango.

2. ARGUDIO TESTUAK LANTZEN

2.1. HEZKUNTZAN

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta baita Batxilergoan ere argudio testua da gehien lantzen den testu moldea. Horren seinale da Batxilergoako curriculum¹, testu mota hau lantzeari garrantzi handia ematen baitzaio. Bigarren mailako Euskara *eta Literatura* irakasgaien erakutsi beharreko edukietan nonahi aurki daitezke argudio testuak lantzeko zereginak, batez ere iritzi testuei loturikoak, eta hauei dagozkien elementuen gainean lan egiteko eginbeharrak aurki daitezke: adierazpen markak, objektibitatea eta subjektibitatea adierazteko hizkuntza-prozedurak, modalizazio prozedurak, perpaus modalitatea, egitura, kohesio elementuak, esaldi konplexu motak, ezaugarri lexikoak... Horrez gain, ikasle bakoitzaren alderdi kritikoa lantzea ere hartzen du kontuan curriculumak eta argudiatzeko estrategiak eraginkortasunez erabiltzea.

Hori guztia jakinda, ezin ukatuzkoa da testu genero honek irakaskuntzan duen garrantzia. Gainera, argudio testuak landuz hizkuntzaren beste alderdi asko landu daitezke, gramatika edo hiztegia kasu. Ikasleak halako testu bat idatzi behar duenean bere iritzi edo ikuspuntua defendatzeko esaldi konplexuak eraiki behar ditu. Horrek batzuetan konmutadura aldetik arazoak ekar ditzake edota esaterako, ahalera egiturak falta izatea. Baliteke klasean ahaleraren gainean egindako ariketak ikasleak ongi egitea, baina ondoren diskurtso propioa garatzerako orduan zailtasunak aurki ditzake, ez baitaki garbi zein egoeratan erabili behar den halako egitura.

Horrez gain, ahotsen kudeaketa lantzeko ere balio du testu genero honek, izan ere, bakoitzaren ekoizpen idatzian oso ohikoa da beste batek esanak testura ekartzea eta horretarako baliabide ezberdinak ikasi ditzake. Bestalde, hiztegiaren kasuan, hainbat termino landu daitezke argudiatzearekin zerikusia dutenak: *adierazi, agertu, plazaratu, bota, gaineratu, erantsi, salatu, arrazoitu, ...* sinonimoak ez diren aditzak dira, baina beharrezkoak direnak argudiozko (eta bestelako) testuen ekoizpen helduak bideratzeko. Beraz, ikasleen lexikoa aberasteko balio dezake argudio testuak lantzeak eta horrez gain, euren ikuspuntua edo iritzia modu ezberdinetan azaltzen ikas dezakete.

2.2. ARGUMENTAZIOA

¹ 23/2009 Dekretua – Hezkuntza, Hizkuntza politika 110-116

Argumentazioa hizkuntzalaritzan eta hizkuntzaren didaktika korrante askotan ere aztergai izan da, eta ondorioz definizio ugari izan ditu. Garrok (2007), esaterako, Anscombe eta Ducroteren (1994) hitzak dakartza gogora eta hauen ustez argumentazioa hizkuntzan berezkoa da, testu guztiak dira helburu argumentatiboz sortuak. Baina Garrok argumentazioa ez du hain ikuspuntu orokorretik aztertzen, Fuentes eta Alcaide-ren (2002:22) lanean oinarrituta “llamaremos propiamente argumentativo a aquel texto o secuencia que marca explícitamente el razonamiento al que quiere llevar al interlocutor”.

Calsamiglia eta Tusónen arabera (2012) argumentazioa testu sekuentzia gisara gure bizitza sozialeko hainbat ekintza diskurtsibotan agertzen da, publiko zein pribatu izan. Eguneroko hizketan argumentatzen dugu, lan bat eskuratzeko elkarrizketetan, solasaldi edo debate batean... Entzulea konbentzitu nahi den edozein egoeratan argumentatzen dugu. Zentzu zabalago batean, argumentazioa ekintza diskurtsibo bat dela azpimarratzen dute adituek zeinak behar komunikatibo bati erantzuten dion: hartzailearengana bideratzen da bere atxikimendua lortzeko. Horrez gain, argumentaziorako funtsezko osagaiak honakoak direla aipatzen dute:

1. Objektua: edozein gai eztabaidagarri, dudazko, problematiko zeinak tratatzeko modu ezberdinak gain hartzen dituen.
2. Lokutorea: errealitatea interpretatzeko modu bat azaldu behar du, ikuspuntu bat hartu behar du, bere iritzia azaldu.
3. Izaera: polemikoa, dialogikoa; bi iritzi edo gehiagoren arteko kontrajartzean oinarritzen da
4. Helburua: hartzailearen atxikimendua eskuratzeko edo konbentzitzea hartzaile batek edo publiko zabal batek ideia baten onspena eman dezan.

Aditu hauen arabera, ikuspuntu baten onargarritasunaz konbentzitzea da hiztunaren helburua argudiozko testu bat ekoizten denean. Garrok gaineratzen du, Garcia-Debancen (1996/97) lanean oinarriturik, argumentazio testuak hiru multzotan bana daitezkeela helburuaren arabera:

1. Argumentazio erretorikoa: helburua entzuleria konbentzitzea da, zerbait egin dezan edota erabaki bat har dezan.

2. Argumentazio espekulatiboa: gai baten inguruan arrazonatzen badakigula jakitera ematea da.
3. Argumentazio heuristikoa: zientzia arloetan ohikoa, helburua posizio bat ongi eraikia dagoela azaltzea da.

(Garro 2007: 71)

Bestalde, Cuenca-ren (1995) arabera argudiatzea diskurtso fenomeno konplexua da, bere helburua hartzailea edo entzulea ideia edo tesi baten inguruan konbentzitzea delarik. Adituaren hitzetan hiru funtzio betetzen ditu argudiatzeak: lehena, adieraztea (igorleak iritzia adierazi); bigarrena, deitzailea (hartzailearengan eragin); eta hirugarrena, erakusgarria (munduaz hitz egin).

Camps-en (1995) iritziz, argudiaketa testuinguruari hertsiki loturik doa. Beraz, igorleak ezagutu behar du besteen iritzia, ondoren berearekin alderatzeko. Ondorioz, hartzaileak irudikatu beharko ditu bere argudiaketak zentzua izan eta horrela bere helburua lortzeko.

Garroren hitzetan argumentazioaren helburu nagusia honakoa da: hartzailea norberaren ikuspuntuaren balizkotasunaz konbentzitzen saiatzea (norberaren ikuspuntua justifikatzea) edota hartzailearekin negoziatzea. Beraz, hartzailea kontuan hartzearen garrantzia beste diskurtso mota batzuetan baino nabarmenagoa izango da argumentazio-diskurtsoan.

Cuencak hartzailearen inguruan hitz egiten du bere lanean eta argumentazioaren hartzaile “ideala” esplizitua dela dio, ahal bada bertan dagoena eta aktiboa. Garrok, ordea, hartzailea modu zabalagoan ulertzen du, hartzailea esatean ez baitu solaskidea bakarrik kontuan hartzen, argumentazio-diskurtsoaren jasotzaile potentzial guztiak hartzen ditu kontuan. Bestalde, Idiazabal eta Larringanek argumentazio egoera batean hartzailearen irudiak duen garrantzia ekartzen dute gogora:

“Argumentar es una acción lingüística. Desde la lógica natural, la argumentación puede definirse como la puesta en texto de un micro-universo orientado al otro, como aquella acción lingüístico-discursiva que tiene como objetivo intervenir en las representaciones, puntos de vista, opiniones, actitudes y comportamientos de otros. Argumentar supone, pues, incidir en los esquemas cognitivos del otro.”

2.2.1. IRITZI ARTIKULUAK

Iritzi artikulua argudio-testu mota bat da eta orain artean argumentazioaz azaldutako ezaugarriez gain, bere ezaugarri propio edo indibidualak ere baditu. Cuencak hiru atal bereizten ditu iritzi artikuluetan eta honakoak dira:

1. Sarrera: gaiaren aurkezpena eta hartzaileak igorlearen posizioa ezagutzeko ideiak aurkezten dira.
2. Garapena: argumentuak azaldu eta euren aldeko defentsa egiteaz gain gaiaren kontrako argudioak gezurtatzen dira.
3. Konklusioa: sintesiaren atala eta defendatutako tesiaren berrindartzea

Horiez gain, ordea, izenburuen atala ageri zaigu iritzi artikuluetan. Izenburuak ez dira estrukturalak, baizik eztabaida pizteko, egilearen iritzia emateko edo gaiaren inguruko bere posizioa adierazteko bide dira (beti ere egilearen asmoen arabera). Baina egitura hau ez da beti hain zurruna izaten, izan ere, egileak bere modura antolatu ditzake testuaren atalak. Esaterako, konklusioa hasieran emanaz.

Bestalde, iritzi artikuluen barnean hainbat testu-mota aurki ditzakegu, hala nola, editoriala, zutabea, zuzendariari gutuna eta ahozkoari dagokionez, irratiko edo telebistako esatariaren analisisa edo bakarrizketa.

2.3. BESTEARI ERREFERENTZIA EGITEA

Atal hau garatzeko orduan Garroren tesia izan dut bidelagun, lan horretan diskurtso erreferituaren gaineko atalean oso ongi azaltzen dituelako gai honi dagozkion kontzeptuak. Beraz, hasteko, besteak edota hartzaileak hiztunaren ekoizpenean, bai ahoz bai idatziz, duen garrantzia azpimarratzeko ekar ditzagun adituaren hitzak gogora:

“Hitz egiten duenean hiztunak beti du bestearen eragina eta arrastoa. Bestea beti dago presente; bestea ez nahitaez zentzu fisikoan, baina bai alteritatearen zentzuan; zentzu zabalean ulertuta, ez solaskidea bakarrik, baizik eta ekoizpen horren helburu den entzulea edota testuz kanpoko hiztunak ere. Hiztunak bere hizkuntza jarduna beti

aukeratuko du, egokituko du, solaskidearen hizkuntza maila kontuan hartuta. Argumentatzerakoan ere bestearengandik espero duen erantzunaren arabera eraikiko du hiztunak bere estrategia argumentatiboa.”.

(Garro 2007: 127)

Adituak polifoniaren gainean zenbait xehetasun azpimarratzen ditu eta horietako bat polifoniari eman zaizkion balioen aitortza da. Izan ere, bi balio aitortu ohi izan zaizkio: balio narratiboa eta balio argumentatiboa. Besteen esanak jasotzeak balio narratiboa du gertaera baten errepresentazioa den neurrian, baina argumentuzkoa dela ere esan daiteke, diskurtso hori enuntziatzaileak tesi bat defendatzeko edo beste tesi bat proposatzeko ekartzen badu.

Bestea modu markatuan kontuan hartzeko baliabide ezagunena diskurtso erreferitua da. Garrok Jaspersen eta Reichler-Béguelinek (1997) esanak bere egiten ditu eta diskurtso erreferituak balio argumentatibo nabarmena duela azpimarratzen du, horrek argumentazioari begira hiru funtzio bete ditzakeela proposatuz:

1. Diskurtso erreferituak modelo bat eta anti-modelo bat erakusteko gaitasuna du. Hala bigarren enuntziatzaileak (E2) berea baino hobea den beste hiztun baten hitzak hartzen ditu modelo baten berri emateko. Bestalde E2k ironiaren bidez beste baten ikuspuntua baliogabetzeko haren hitzak erakuts ditzake.
2. Diskurtso erreferituak kontra-argumentazioa prestatzen du. Hala, diskurtso erreferituaren bidez besteen ikuspuntu argumentatiboen berri eman daiteke, gero beste ikuspuntu bat agertzeko.
3. Diskurtso erreferitua hiztunek elkarbanatzen dituzten jakintzen erakusgarri izan daiteke. Espazio komunak ekartzen dituzte, gehienetan formula ia proberbialez, iturri jakinik gabeko esamoldeak erabiliz.

(Garro 2007: 131)

Garroren arabera hartzaileari erreferentzia egitea aipatzen denean askok besteak esandakoa soilik irudikatzen du. Berak, ordea, besteari erreferentzia egitea modu zabalagoan ulertzen du, hau da, ez da soilik besteak esandakoari erreferentzia egitearen fenomenora mugatzen. Beraz, norbaitek esan duenaz gain, norbaitek esan dezakeena, esan ez duena, norbaitek bere buruari esan edota esaten diona... kontuan

hartzen ditu. Baina baita bestearen pentsamenduei erreferentzia egiten dieten elementuak ere.

Nire azterketaren aztergai nagusia bestea edo hartzailea izango da, besteari erreferentzia nola egiten zaion ikustea. Horretarako, Garrok aipatzen duen moduan, hainbat baliabide daude bestea kontuan hartzeko eta norberaren jardunean presentzia horren zantzuak erakusteko eta lau kategoriatan banatzen dira: diskurtso zuzena, zehar diskurtsoa, diskurtso zuzen librea eta zehar diskurtso librea. Azken bi diskurtso mota horiek diskurtso zuzen eta zehar diskurtso ez markatuak dira, hau da, hiztunak testuinguruan eta bere ezagutzetan oinarriturik interpretatzen du beste baten hitzak erreferitzen direla. Baina horiek normalean literaturaren eremuan erabiltzen direla aipatzen du Garrok, hiztunaren ekoizpena eta aipuaren arteko muga lausoa delarik.

Baina autore gehienek onartzen dute horiek ez direla besteen esanei erreferentzia egiteko bide bakarrak, baina bai gehien erabilienak. Estilo zuzenean, jatorrizko hitz berak errepikatzen diren bitartean, inolako aldaketa gramatikalik egin gabe, zehar estiloan zenbait aldaketa izaten dira, edo nahitaez edo aukeran, jatorrizko perpaus lokabeak mendeko bilakatuz, dagokien menderagailua hartzen du.

Estilo zuzenean jatorrizko perpausak bere hartan ematen dira, eten baten ondoren, zehar estiloetan, ordea, aipamenak menderagailua darama ondoan eta aditz aipatzailearen perpausaren txertatua ageri da. Aipatutako perpausak birformulatu egiten dira eta jada hiztun berriarenak dira, ez jatorrizkoarenak. Horrela askotan aditzaren pertsona eta denbora edota erakusleak eta horrelakoak ere aldatu egiten dira.

Garrok Van Der Houwenek (2000) esanak ekartzen ditu gogora bi estilo horien artean begi-bistakoa den desberdintasun bat badela esatean. Desberdintasun hori hiztunak hitz egiterakoan hartzen duen ikuspuntua da. Zehar estiloan hiztunak bere ikuspuntutik jarduten du eta espazioari eta denborari dagozkion markak bereak dira; estilo zuzenean, ordea, bere diskurtsora ekartzen duen enuntziatzailearen ikuspegitik hitz egiten du eta espazio zein denborari dagozkion markak harenak dira. Horrek, entzuleari dagokionez ere badu eragina, estilo zuzenean entzuleak kontu handiagoa izan behar baitu *ni* ez delako hiztuna, baizik eta beste pertsona bat; zehar estiloan, aldiz, ez dago erreferentean aldaketarik eta ondorioz, entzuleari eskatzen zaion arreta ez da horrenbestekoa.

Bestalde, Garroren hitzetan balore enuntziatibo eta pragmatikoa aitortzen zaie. Hori horrela, estilo zuzena egiazkoagoa dela uste da, eta zehar estiloa, aldiz, jatorrizko hitzetatik urrunago dagoela. Diskurtso zuzena enuntziatzailearen hitzen errepresentazioa izango da eta zehar diskurtsoa, ostera, lokutoreak bestearen hitzen jabetzaz egiten duen errepresentazioa. Estilo zuzenean ez dira zehatz-mehatz jasotzen jatorrizko diskurtsoko hitzak, besteak beste, diskurtso erreferituaren helburua ez baita soinu katearen ezaugarri fisikoak imitatzea, gehiago da enuntziatuaren mezua jasotzea.

Laburbilduz, nire lanean besteari erreferentzia egiteko moduak izan ditut aztergai. Izan ere, argudio testuen helburu nagusiena bestea konbentzitzea denez, ezinbestekoa da hartzailearen ahotsa testuan sartzea. Nik eraturako kontsigna berriaren helburua zen hori eta beraz, estilo zuzena eta zehar estiloa bezalako formulak aztertzea izan da nire eginkizuna. Horretarako bi estilo horien barnean zenbait azpimultzo egin ditut, aurrerago ikusiko den moduan.

3. KONTSIGNA

Testu bat ekoizterako orduan, ahoz zein idatziz, eta batez ere hezkuntzaren esparruan ematen den arau-sorta da kontsigna. Beraz, ikasleak euren lanean bideratzeko ezinbesteko tresna da eta horretarako kontsignak helarazi nahi duen helburua argi izatea garrantzitsua da.

Riestrak (2004) honako definizioa ematen du kontsignen gainean:

“(...) las consignas de tareas son textos orales y escritos producidos en la interacción sociodiscursiva de todos los niveles de enseñanza, es considerada y analizada como el propio texto de enseñanza y determina el posible efecto sobre los estudiantes en la realización de las actividades de leer y escribir. Se trata, por lo tanto, de enunciados organizadores del género discursivo/textual, de elaboración profesional que conduzcan al desarrollo de una tarea específica y concreta en un contexto determinado”.

(Riestra 2004:55)

Nire lanean, idatzizkoei begira egindakoetan oinarrituko naiz, proiektu hau iritzi artikulu batzuk idazteko eraikitako kontsignen azterketan oinarritzen delako.

Silvestriren (1995) hitzetan mota honetako enuntziatuen helburua hartzaileak ekintza zehatz bat burutzea da, hartzailearen ekintza erregulatuko duen diskurtso bat. Beraz, dirudien baino garrantzi edo pisu handiagoa du kontsignak testuetan. Camelok (2010) dioenez, garrantzi gutxi eman izan zaio halako diskurtso mota pedagogikoei, hizkuntzen irakaskuntzan ardatz garrantzitsua diren arren. Gainera, autore gehienek bat egiten dute eskolan kontsignak testu hezigarriak direla aipatzean, idazteko ekintza zein beste edozein eginbehar bideratzeko zehatzak dira eta ikasleen gaitasun mentalen garapenean laguntzen dute.

Cameloren hitzetan kontsigna batek testu molde baten idatzizko ekoizpena bideratu eta zehaztu behar du testuinguru jakin batean. Kasu gehienetan enuntziatu horiek anbiguoak izan ohi dira eta ondorioz, nahasteak sor ditzakete ikasleen artean, interpretazio ezberdinak egin baititzakete. Ondorioz, ikasleen ekoizpena ez da beti irakasleak espero duena izaten. Baina orain artean esandakoa laburbiltzeko Camelok Atorresiren (2005) hitzak dakartza gogora eta kontsigna egoki batek honako elementuak izan behar dituela aipatzen du: helburua, gaia, egoera komunikatiboa eta testu mota. Halaber, interpretazio ezberdinak egitea saihestu beharreko kontua da, azalpenak ikaslea anbiguetatera bideratzea da ekidin beharreko kontua.

Baina adituak aipatzen duen moduan, testuen ekoizpena begira idatzitako kontsignak formulatzea ez da lan erraza. Izan ere, hizkuntzaren maila bakoitzarekin erlazionatutako aspektu bakoitza ez da kontuan hartzen edo erdizka hartzen da. Honek erakutsi dezake enuntziatu hauen planteamendua gainetik egiten dela eta ez dela kontuan hartzen zein inplikazio duten maila kognitibo, linguistiko, diskurtsibo eta komunikatiboan.

Laburbilduz, kontsignek garrantzi handia dute ikasleen azken ekoizpena begira. Izan ere, kontsigna batek baldintzatzen du ikasleek idatziko dutena.

4. METODOLOGIA

Lan hau burutzerako orduan erabili dudana corpusa izango dut hizpide jarraian. Hasieran aipatu bezala, iaz egindako lan batean oinarriturik ekin diot oraingoari. Izan ere, bildutako corpus hartan ohartu ginen ez genituela lortu guk esperotako emaitzak. Orduan konturatu ginen kontsignak erabateko eragina izan zezakeela testu horien ekoizpenean eta beraz, hori izan da lan honetan frogatu nahi izan dudana.

Azterketarako corpora² joan den urteko lanetik hautaturiko zortzi testuez gain, kontsigna berriarekin jasotako beste zortzi testuez osaturik dago, guztira hamasei testu beraz. Lehenengo testuei erreferentzia egiteko A letra bidez izendatu ditut eta bigarrenak B letraz. Horrez gain, testu bakoitzari zenbaki bat ezarri diot erreferentziak argiago izateko, beraz A1, B5, A3... bezalako izendapenak aurkituko dira corpusaren analisia egiterakoan. Amaitzeko aipatu testuak hautatzerako garaian lehen begiratuan etekin gehien erakutsi zitzaizkatenak aukeratu ditudala. Horregatik, hartzailearen erreferentzia erakusten duten ekoizpenez osatua dago corpora, baina badira A testuetan halakorik erakusten ez dutenak eta beraz, egitura aldetik ongien formulatuak daudenak hartu ditut multzoa osatze aldera.

Testu hauek gidatzeko ekoizpena baldintzatuko zuten kontsignez baliatu naiz. Esan bezala bi kontsigna erabili ditut, bata lehen ekoizpenetan erabili zena (A testuetakoa) eta bestea bertan aurkitutako hutsuneak gainditze aldera eraikitako kontsigna berria, (B testuetakoa). A testuak biltzeko honako kontsigna eman genien ikasleei:

"Egunkarian honako albistea irakurri duzu: "Komertzio txikiak arriskuan daude". Gaiak kezkatu zaitu eta pentsatzen aritu ostean zure herriko aldizkarian argudio-testu bat (iritzi-artikulua) idaztea bururatu zaizu. Horretarako komertzio txikien eta handien arteko lehiaz mintzatuko zara, batoren zein bestearen aldeko eta kontrako argudioak emanaz. Errazago suerta dakizun hona hemen zenbait puntu: kopurua, kalitatea, prezioa, erraztasuna, harremanak, denbora..."

Kontsigna honek zenbait akats zituela konturatu ginen ikasleen testuak irakurri ostean, guk aztertu nahi genuena ez genuelako topatu eta beraz, gure eginkizunean, hots, ikasleei emandako idazteko proposamenean, huts egin genuela konturatu ginen. Huts horietatik abiatuta kontsigna egokiago bat osatu nuen, ikasleen ekoizpena hobekiago bideratuko zuen azalpena. Honakoa izan zen testu berriak (B testuak) jasotzeko erabili nuena:

"Zure herriko udal taldeak atez-ateko zabor sistema berria jartzeko proposamena egin zuen duela pare bat hilabete. Ordutik hona, herritarren artean iritzi ezberdinak daudela bistakoa da eta herriko aldizkariaren azken alean aldeko eta kontrako

² Corpora osatzen duten testuak eranskin modura atxikirik daude lanaren amaieran.

esanak irakur daitezke. Zu, ordea, ez zaude ados irakurri dituzun zenbait iritzirekin eta zure ikuspuntua azalduz iritzi artikulua bat idaztea pentsatu duzu herriko aldizkarian argitaratzeko. Horretarako, gaiaren inguruan zu bezala pentsatzen ez duten horiek gogoan izanik eta zure iritziak arrazoiekin defendatuz, haiek konbentzitzea izango da zure helburu nagusia.”

Corpuseko testuen azterketara begira, batez ere hau izan da aztergaia: bestearen hitzak norberaren testura ekartzeko ikasleek erabili dituzten baliabideak. Horiek aurkitzea eta aztertzea izan da lan honen helburu nagusia.

Nolanahi ere, ekoizpenak osatzen dituzten hitz kopuruak eta zer nola egituratuta dauden ikustea ere garrantzitsua da testuen alderaketa egin ahal izateko eta kontuan hartuko ditut testuen azterketa egiterako orduan.

5. AZTERKETA

Lehen esan bezala hiru ildo izango ditu testuen gaineko azterketak: lehenik, ekoizpenen hitz kopuruaren ingurukoa; bigarrenik, egituraren aldekoa eta hirugarrenik, diskurtso erreferituari buruzkoa. Lehenengo eta azkeneko ataletan, lehenik azterketa kuantitatibo bat burutu dut emaitzak argiago ikus daitezzen eta bigarren zatian, emaitza horiek oinarri harturik, azterketa kualitatiboa izan dut hizpide.

4.1. HITZ KOPURUA

Lehenik eta behin aitortu behar dut bi kontsignetan ez niela zehaztu zenbat hitz idatzi behar zituzten, hau da, ez nien azaldu testuak zenbat hitz eduki behar zituen, 200-250 hitzekoa esaterako. Orrialde bateko idazlana egiteko eskatu nien, besterik gabe.

A testuei dagokienez, ikasle bakoitzak bere ekoizpena osatzeko erabili dituen hitz kopuruak zeintzuk izan diren argiago ikusteko, taula batean laburbildu ditut guztiak. Hona emaitzak:

1. TAULA: A ETA B TESTUETAKO HITZ KOPURUAK

TESTUA	A1	A2	A3	A4	A5	A6	A7	A8	BATAZ BESTE
HITZ KOPURUA	152	133	110	139	120	166	102	151	134,12
TESTUA	B1	B2	B3	B4	B5	B6	B7	B8	BATAZ BESTE
HITZ KOPURUA	103	174	143	155	136	145	140	130	140,75

Emaitzei erreparaturik esan daiteke orokorrean testu laburrak idatzi dituztela ikasleek. Inor ez da iritsi 200 hitzetara eta normalean, hitz kopuru horretako ekoizpenak eskatu ohi dira ikastetxeetan idazlanak burutzerako garaian. Gainera, iritzi artikulua hartzailea konbentzitzeko helburuz eginak dira eta horretarako norberaren iritzia argudio pisutsuez defenditu behar izaten da. Horrek idatzian garapen bat dakar berekin. Are gehiago, bestearen iritzia zurearen kontrakoa bada, ahalik eta azalpen gehien eman behar dira bestearen usteak aldatzeko eta horrek, testu emankorrak idaztea eskatzen du.

Esaterako, A testuetan hitz kopuruaren batz bestekoa 134,12 da. Beraz, orokorrean testu laburrak dira eta kasu hauetan nabari da argudioetan motz geratzen direla ikasleak, hau da, ez dituzte behar bezala azaltzen, oso azalekoak dira. B testuetan, ordea, 140,75 hitz dira batz beste ikasleek erabili dituztenak. Kopurua zertxobait altuagoa dela ikus daiteke, baina ez da alde izugarria, testu laburrak izaten jarraitzen dute. Hala ere, adibide hauetan esan daiteke ideia bakoitzaren aldeko argudioak pisutsuagoak izan direla, ez baitziren A testukoak bezain ugariak eta azalekoak. Iaz emandako kontsignan zenbait puntu zehaztu genituen ikasleek horien gainean arrazoitu zezaten eta horrek eragin bide zituen argudio batetik besterako salto azkarrak eta azalpenak oso azalekoak izatea. B testuetan, aldiz, argudio gutxiago eman dituzte baina hauen azalpenetan garapen gehiago ikus daiteke, denbora hartu dute hauek ongi esplikatzeko, beraien iritzia argi gera zedin eta hartzailea konbentzitu zezaten.

4.2. EGITURA

Testu-genero orok bere plangintza izan ohi du eta kasu honetan, iritzi artikuluek egitura berezi bat dute: izenburua dute hasieran, ondoren sarrera bat egiten da gaia aurkeztuz, segidan bakoitzaren iritzia defendatzeko arrazoiak ematen dira eta azkenik, konklusio edo ondorio batera iristen da egilea.

Testuen alderdi hau aztertzea egokia iruditu zait halako ekoizpenak burutzerako garaian, ikasleek jakin beharreko funtsezko elementua delako. Iritzi artikuluen egitura jakin ezean, nekez idatz daiteke halako testurik nahiz eta idazterako garaian jario izugarria izan. Lehenik beraz, testu moldearen zutabeak ezagutu behar dira testua eraikitzen hasi aurretik.

Lehen begiratuan ikusi ahal izan dut B testuetan egitura ez dutela ongi menderatzen, testuak irakurri ostean zerbait falta zaien sentazioarekin geratu bainaiz

eta euren gabezia zertan oinarritzen den frogatu nahi izan dut. Guztiek hasiera egokia ematen diote euren ekoizpenari, sarrera gisara gaia ongi kokatzen baitute eta zenbaitek ere euren iritzia garbi azaltzen dute abiapuntutik. Ondoren, testuaren garapenera salto egiten dute eta euren ikuspuntua azaltzeari ekiten diote. Argudio ezberdinak ematen dituzte eta hauek defendatzen saiatzen dira, askok hartzailea kontuan hartzen dutelarik. Baina ekoizpena amaiera aldera iritsi behar denean arazoak datoz. Izan ere, askok ez dute ondorioen atala argudioen garapenetik bereizten eta horrek ez du idazlana biribiltzen, irakurlea zerbait falta den sentazioarekin geratzen baita. Soilik B3 eta B6 testuetan aurki daitezke amaierako formula gisara honako adibideak:

“Amaitzeko esan, nire iritziz...” (B3)

“Beraz, niri iritziz...” (B6)

Bi testu hauetan egilea amaierara iritsi dela eta bere iritzia garbi zein den azalduko duela badaki irakurleak eta beraz, idazlana biribiltzeko balio dute. Baina gainerako testuetan, ez da ageri halakorik. Beraz, aurretik esandako guztia laburbildu eta azken aldiz euren iritzia plazaratzeko atala falta da gainerakoetan. Garrantzitsua da zati hau, hartzailea aurretik esandako guztiaren ideia garrantzitsuenarekin geratzea baita helburua eta ekoizpenaren goren puntua. Alde honi dagokionez, gabezi nabaria erakutsi dute zenbait ikaslek eta halako adibideek argi erakusten dute testu molde bakoitzaren egiturak duen garrantzia, garatu dena maila onekoa izan arren egitura errespetatzen ez bada, emaitza borobila nekez lortuko baita.

A taldea osatzen duten ekoizpenetan, ordea, esan daiteke ikasle guztiek iritzi artikuluen oinarritzko egitura darabiltela eta aurrekoek ez bezala, hauek ondorioen atala ongi bereizi dutela aurrekoarengandik, ekoizpenari merezi duen biribiltasuna emanez.

Baina, bestalde, bi multzoetako testu zenbaitek gabezi bera erakutsi dute izenburuaren atalari dagokienez. Izan ere, A testuetan hiruk (A1, A2 eta A7) ez dute kontuan hartu izenburuaren zatia eta jarri dituztenek ere gehiegi pentsatu gabe jarri dituztela ondoriozta daiteke, oso ahulak baitira. Gainerako bost testuetatik lauk izenburu bera darabilte “Komertzio txikiak arriskuan” eta A8k, aldiz “Komertzio txiki edo handiak”. Honen arrazoa kontsignan eman genien albistearen izenburua da dudarik gabe, egunkari batean titular hori irakurri zutela esan baikenien. B testuei erreparatu, soilik B5 testuak ez dio izenbururik jarri bere idazlanari, gainerakoek bai eta ikus

daiteke ez direla hain arruntak, saiatu baitira euren iritzia ere sartzen. Ikus ditzagun batzuk:

“Bai atez-atekoari” (B3)

“Baina zergaitik ez?” (B8)

Adibide hauetan egileek jada euren ikuspuntua agertu dute, atez-atekoaren alde daudela argi utzirik eta beraz ez dira A multzokoak bezain neutroak. Hala ere, badira “Atez-ate” bezalako izenburu neutroa erabili duten testuak, B3 eta B7 esaterako.

4.3. BESTEARI ERREFERENTZIA EGITEKO MODUAK

Atal honetan ikasleek euren ekoizpenetan gainerako ahotsak nola ekarri dituzten aztertzea izango da helburu nagusia. Horretarako, besteari erreferentzia egiteko erabili dituzten baliabideak zerrendatuko ditut eta ondoren, egoki erabiliak izan diren edo ez ikusteko balorazio txiki bat.

Hasi aurretik nire hipotesia kontsigna berriarekin burututako testuetan baliabide gehiago aurkituko direlako da. Izan ere, kontsigna horretan hartzailea konbentzitzeko helburua zutela garbi azaldu nien eta horretarako haren iritzia aldatu beharko zutela. Lehen kontsignan, ordea, ez zetorren halako informaziorik, hau da, ez nien aipatu hartzailea kontuan hartu behar zutenik eta ondorioz ekoizpenetan nabaritu da alde hori falta dela. Beraz, kontsigna berriarekin eratutako B idazlanetan besteari erreferentzia egiteko baliabide gehiago aurkituko direla pentsatzekoa da, kontsignaren eraketa horra bideratuta eraiki nuelako.

Bi testuetan aurkitu ditudan baliabideak zerrendatzerako orduan hainbat multzotan sailkatu ditut, ikasleek erabili duten modua laburbiltzen dituztenak. Hona egin ditudan multzo ezberdinak, bakoitzaren gaineko azalpen labur batez:

- *Hitzez hitz*: besteak esandakoa hitzez hitz agertzen da testuan, komatxoaren artean.
- *Kontzesiozko perpausak*: *nahiz eta.../...arren,...* bezalako egiturak.
- *2.pertsona*: hartzailea kontutan hartzen duela erakusteko 2.pertsonan zuzentzen da egilea, *zu* edo *zuek* bati idazten dio.

- *Generalizazioak*: jende multzo baten usteak plazaratzen dira ziurtasun gehiago emateko esandakoari. *Askok uste dute, guztien iritzia da...* bezalako egiturak.
- *Iritziaren iturria*: egileak erabiliko duen argudio edo iritzia norena den esaten du.
- *Autoritate iturria*: egileak erabiliko duen argudio edo iritzia norena den esaten du, baina kasu honetan autoritate batena da (udala, alkatea, gobernua...).

Lehen baliabidea estilo zuzenean oinarritzen da, hain zuzen ere, jatorrizko hitz berak errepikatzen direlako, inolako aldaketarik gabe. Gainerako guztiak zehar estiloaren barnean sar daitezke, aldaketaren bat jasan dutelako, jatorrizko perpausa mendeko bilakatu baita, dagokion menderagailua hartuz.

Jarraian A eta B testuak aztertu ditut eta bietan aurkitutako emaitzekin taula ezberdinak osatu ditut. Taula horietan testu bakoitzean zein baliabide erabiltzen den azaltzen da. Hona A testuen gainean eginikoa:

2. TAULA: A TESTUETAKO BESTEARI ERREFERENTZIA EGITEKO MODUAK

	A1	A2	A3	A4	A5	A6	A7	A8	GUZTIRA
Hitzez hitz	-	-	-	-	-	-	-	-	0
Kontzesioa	-	-	-	-	-	-	-	-	0
2. pertsona	-	-	-	BAI	-	BAI	-	-	2
Generalizazioak	BAI	BAI	BAI	-	BAI	-	-	-	4
Iritziaren iturria	BAI	-	-	-	-	-	-	-	1
Autoritate iturriak	-	-	-	-	-	-	-	-	0

Lehen aipatu bezala kontsignan ez nien azaldu hartzailea kontuan izateko, baina taulari erreparaturik ikus daiteke besteari erreferentzia egiteko zenbait baliabide erabiltzen dituztela ikasleek. Orotara sei testuetan ageri da halako baliabideren bat eta soilik bi testuk ez dute testuz kanpoko ahotsik erabili.

Generalizazioa izan da ikasleek gehien erabili duten baliabidea, lau testutan agertu baita. Ikus ditzagun adibideak:

“Jende askok uste duenez...” (A1)

“Herritar askok uste dute.../ Beraien ustez...” (A2)

“Batzuek nahiago dute...besteek berriz...” (A3)

“Badago oraindik ere kalitatea nahiago duen jendea...” (A5)

